


EUSEBIO OSA: BELAUNALDI BATEN LEKUKO

Pako Sodupe,
Euskal Herriko Unibertsitatea, 258 or.
Bilbo, 2013

Pako Sodupek liburu berri bat argitaratu du, oraingoan ere XX. mendeko euskal idazle bati buruz. Ez da lehenengo eta, zorionez, ez dirudi azkena izango denik. Honezker, hamazortzi urte pasatu dira bere lehen lan luzea argitaratu zuenetik (*Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, 1996) eta bitartean liburu eta artikuluetan euskal idazle sorta eder baten lanak argitaratu edota iruzkindu ditu: Piarres Lafitte, Andima Ibinagabeitia, Iokin Zaitegi, Etienne Salaberri, Gorgonio Renteria, Pello Sarriegi... ez da zerrenda osoa, baina bai bere lan nagusia. Duela, gutxi, gainera, doktorego-tesia irakurri zuen EHUUn (*Tradizioa eta modernitatea 50eko hamarkadan: euskal kulturaren biziberritze gatazkatsua*, 2010). Heldutasuna erdietsi duen iker-tzailea dugu, beraz, eta horren frogarria da gaur iruzkindu nahi dugun liburua: *Eusebio Osa: belaunaldi baten lekuko* (2013). Liburu bikaina, esan dezadan beste ezer baino lehen.

Baina liburuarekikoak aletzen hasi aurretik, erants dezagun beste lerro pare bat haren tesiaz: 50eko hamarkadaren analisi exhaustibo bat da, funtsean, hipotesi implizito bat mahaigaineratzen diguna, hau da, XX. mendean euskal kulturak nozitzen duen egiazko aldaketa handia, mendearen zinezko giltza, hamarkada horretan dagoela, ez 30eko edo 60ko hamarkadetan. Hipotesi kitzikagarria, gure uste eta ohiko eskemetan aldaketa handiak eragin beharko litzukeena. Baina utz dezagun beste baterako.

Zeren gaur aipagai dugun liburuak ederki balio du hura irakurtzeko hartutako lana. Liburu luzea baita, orrialde kopurua hain handia ez izanik ere haien tamaina ohikoa baino luze-zabalagoa delako. Hala ere, euskal kultuaren historiarekiko, kontzeptuaren adierarik zabalenean, interesa duenak bi arrazoi sendo aurkituko ditu aurrera jarraitzeko: batetik, liburuaren txukuntasuna, zentzu guztietan esanda (idazkera argia, ondo harilkatutako argudioak, kapituluaren arteko joskera egokia...) eta bestetik pertsonaiaren beraren tiradizoa. Interesgarria baita pertsonaia bera, Eusebio Osa. Eta, dudarik gabe, merezi zuen liburu bat.



1. irudia. *Eusebio Osa: belaunaldi baten lekuko* argitalpenaren azala.

Tesi nagusia erraz biribiltzen da, izenburuan bertan baitago: belaunaldi baten lekuko da Osa. Lekuko hutsa? Horra, nire uste apalean, Sodupek guztiz lotu gabe dindilizka uzten duen galdera nagusia. Nire irudiko Osa *belaunaldi baten lekuko* baita, dudarik gabe, baina agian ez hori bakarrik.

Laburbil dezagun orain pertsonaia-
ren bizitza: 1936an jaioa Gipuzkoako
bazter bateko baserri batean (Bergara-
ko lurretan, omen, nahiz eta esango
nukeen berak bere burua oñatiartzat
zeukala, herri bien arteko mugan jaio
arren), mutikotatik ikastetxe erlijioso
batean ibili zen (Oñatiko *agustinotan*,
izen ofizialez Kanonigo Lateranda-
rrak), harik eta bertan apaiztu zen arte.
Gero, 60ko hamarkadako burrunbal-
diarekin batera, Gasteizera jo zuen,
artean *agustino* zela, eta komentuko
bizimodua utzita etxebizitza arrunt ba-
tean jarri zen beste erlijioso batzuekin
batera; era berean, ikastola batean
hasi zen maisu; 70eko hamarkadan,
eztanda politiko-sozial-ideologikoa:
ikastolatik botatzen dute (*gorria* izatea-
ren susmopean) eta ziur aski une ho-
rretan oraindik sobera *gorri* ez bazen
ere, denbora oso labur batean apaiz-
goa utzi, ezkondu eta alderdi marxista-
leninista batekin aktiboki kolaboratzea-
ri ekin zion (Organización de Izquierda
Comunista, OIC), aldi berean Pedago-
giaz eta Kulturaz bi liburu argitaratzen
dituelarik, biak oso aurrerazaleak; 80ko
hamarkadan EHUn hasten da lanean
irakasle eta tesi bat egiten du Euskal
Filologian (*Euskararen hitzordena*,
1990). Handik gutxira hil zen, 1993an,
heldutasun bete-betean, egunkarietan
kritika sozial eta politikoko artikuluak
erregulariki argitaratzen zituelarik. Guz-
tiz gehienetan, euskaraz.

Eta bai, marraztu dugun biografia
haren belaunaldiko ehunka batzuen
izan daiteke: baserria, pobreentzako
eskola erlijioso, apaizgo tradizionala,
apaizgoaren garapen *obrerista*, ikasto-
la, sekularizazioa eta ezkontza, mili-
tantzia politiko ezkertiarra, unibertsi-
tea, doktoregoa eta kritika soziopoliti-
koa prentsan. Agian bi ezaugarri bere-
zi marka daitezke bere belaunaldikide
asko eta askoren artean: batetik, ka-

tearen maila guzti-guztiak korritu
zituela, hutsik egin gabe (alde batera
utzita garai horretan hain zabaldua
egon zen militantzia *armatua* edota
kartzela), eta bestetik hasiera-hasiera-
tik erakutsi zuen bokazio intelektual
garbia: oso gaztetik hasi zen prentsa
artikuluak idazten (ordenako aldizka-
rian) eta heriotzak berak prentsarako
zutabeak idazten zituelarik harrapatu
zuen (*Euskaldunon Egunkarian*). Eus-
kararekiko konpromisoa ere oso sako-
na da berarengan. Baina, hala ere,
bai, ezaugarri horiek guztiak oso tipi-
koak dira bere belaunaldiko ehunka
kideren artean, berarengan agian be-
reziki markatuak eta koherenteak badi-
ra ere. Belaunaldi baten lekuko.

Baina pertsonaia alde batera utzita,
non geratzen da pertsona, hezur eta
haragizko Eusebio Osa? Intelektual
baten bizitza irakurri dugu, militante
batena, nahi bada. Baina non dago
bere bizitza? Non dago pozak eta
nahigabeak, penak eta zorionak nozitu
zituen gizona? Nik hutsunea naba-ritu
dut. Are handiagoa Pako Sudupek
berak duela hamazortzi urte Nemesio
Etxanizi dedikatu zion biografiarekin
konparatzen badugu: orduko hartan
nota pertsonala oso markatua zen be-
zala (horrela gogoratzen dut nik, nahiz
eta duela urte asko irakurri), oraingo
honetan Sudupek analisi ideologikoari
eman dio erabateko lehentasuna,
beste kontu batzuk alde batera utzirik.
Hautu kontzientea izan da ala eskura
zeuden iturriek eragindakoa? Bego.

Analisi ideologikoa, bestalde, osoa
da eta oso ondo egitaratua. Bost atal
ditu, gutxi gorabehera haren bizitzaren
garai desberdinen arabera antolatuak.
Haren testuak dira beti abiapuntu, baina
ez da beldurrik testuak testuinguruan
kokatzeko eta harentzat iturri izandako
autoreak (iturri inspirazio gisa eta iturri

beraiekiko polemista gisa) oparo aipatzeko. Analisia, exhaustiboa izan gabe, luzea eta xehea da, agian luzeegia eta xeheegia. Nire iritzia da zenbaitetan aipu gehiegi eta luzeegiak ez ote diren txertatu, gaia xehe-xehe eta bere zokomoko guztietan azaltze aldera. Bestalde, behin baino gehiagotan gure garaiarekiko erreferentzia esplizituak egiten ditu; ondo dago, nik neuk biziki eskertzen ditudan interpolazioak dira, baina horrelakoak egiteko lotsarik izan ez duen bezala, agian Osaren eta haren kontrario intelektualen iritziak laburtzeko eta horrenbeste xehetasun barik emateko ausardi apur bat gehiago izatea ez zen lekuz kanpo egongo.

Bost atal horiek, laburki aipaturik, hauexek dira. Lehena, eta agian gaurko begiekin ikusita *exotikoena* haren esperientzia erlijiosoari buruzkoa da («Fedea eta erlijioa», 27.-66. or.). Horixe ote dago Osaren ondoko hautuen hazia? Ez da erraza erantzutea, izan ere, zerk bultzatu zuen gure protagonista Elizarekin apurtzera? Noraino ailegatu zen apurketa hori? Fedea galtzeraino guztiz? Gorago esan dugun bezala, Pako Sudupek ibilbide intelektual argi bat markatzen digu, baina ez esperientzia pertsonalik. Hala ere, bereziki interesgarri deritzot ondoko datuari erreparatzeari: hasiera-hasieratik Osaren begiak nazioarteari begira daude: lehenik eta behin Kontzilio Vatikanoko II.a, eta ondoren (edo bateratsu?) Johann Baptist Metz, John Robinson edo Dietrich Bonhoeffer bezalako teologoaren eragina erabakigarria da haren bokazio intelektualean. Berahala konbentzionalki Frankfurtoko Eskola deitzen dugun hori (Horkheimer, Adorno, Marcuse...) ere ezinbesteko erreferentzia bilakatzen da. Ohar gaitezen, Osa Alemaniara begira jartzen da, bere belaunaldiko hainbat teologo gazte bezala (Joxe Azurmendi da kasu

nabarmen bat, baina inola ere ez bakarra), eta badirudi Kontzilioaren garaian horrenbesteko prestigioa lortu zuten teologo aleman aurrerazaleak direla haren lehen erreferentzia; handik filosoengana pasatu zen, eta ondoren politika *gorrira*?

Baina bere belaunaldiko beste batzuk ez bezala, Osa ez zen Europara abiatu ikastera. Aitzitik, Gasteizera jo zuen, industrializaziora eta abertzaletasunera iratzartzen ari zen hiri sakonki zaharberritu eta aztoratu batera (1976ko *Martxoaren 3ko gertakariak* lekuko). Nazioarteko irakurketak herri-gintzaren ingudean forjatuko ziren berehala. Hiriko lehen ikastolan hasten da lanean, Olabiden, eta hezurretaraino konprometitzen da ikastolatan berrikuntza pedagogiko baten alde lanean ziharduten sektore gazte eta aurrezaleekin. Laster, gorago esan dugun bezala, ikastolatik bota zuten susmo gaiztoz inguratuta. Ez zen bakarra izan, baina orain ez dugu astirik (Sudupek ere oso gutxi du) arazo horiekin enplegatzeko. Liburuak analisi ideologikoari jarraitzen dio eta, esanguratsuki Célestin Freinet (1896-1966) eta Paulo Freire (1921-1997) dira erreferentzia berriak. Suduperen arabera, batez ere bigarrena. *Pedagogia eta gizartea* (1972) da haren pentsaera ondoen jasotzen duen liburua, baina pertsonalki esango nuke esperientzia pertsonalak izango zirela haren eboluzioa markatu zutenak, eta ez horrenbeste irakurketak. Bigarren atala bukatu da, beraz («Zapalduen pedagogiaren defendatzaile», 67.-101. or.), eta hurrengoari ekiten dio («Marxista», 103.-148. or.).

Osa marxista izan ote zen? Galdera ez dago ongi formulatua. Ikastolako fasea amaiturik, enpresa batean hasi zen lanean eta, dirudienez, sakonki inplikatu zen politika aktiboan alderdi

marxista-leninista baten lerroetan, nahiz eta badirudien inoiz ez zela partidukide izan, zentzu hertsian behintzat. Liburu pare bat ere idatzi zuen horretaz (*Dialektikaz eta kulturaz*, 1975, eta *Democracia es igual a socialismo*, 1977, argitaragabea). Baina orduan ere Osa euskalzale gisa agertzen da orenen buru, praxiari dagokionez bereziki. Beraz, abertzalea ote zen? Gorago erlijioari buruz seinalatu dugun indefinizioa alor honetan ere oso markatua da. Finean, ez dakigu zehatz-mehatz zein izan zen haren jarrera, baldin eta haren jarrera bi hitzetan defini badaitteke. Edo, agian, bai bata zein bestea ez dira *bai ala ez* erantzunda zinez eta osotoro erabakitzen diren galderak. Bai eta ez. Indefinizioa. Errebeldia. Boterearekiko mesfidantza eta kritika. Hortik aurrera, erabateko koherentzia... ez dut uste dagoenik. Osa ez zen alderdi baten teorikoa izan, agian ez zaio bilatu behar erabateko koherentziarik.

Laugarren atalaren irakurketak («Gizarte-kritikari», 149.-213. or) inpresio hori indartzen du. Garbi dago zeintzuk diren haren aldeko erreferentziak (M. Benedetti, N. Chomsky) eta zeintzuk diren haren kritiken jomuga: F. Savater, J. Aranzadi, J.P. Fusi, J. Caro Baroja... Hau da, kanpoko erreferentziak lerro-katze partidista argirik ez duten intelektual *errebeldiak* dira, eta beren kritiken jomugan intelektual euskaldun *liberalak*, funtsezko gaitan PSOEekin bat egiten dutenak. Zer da haiengan kritikatzeko duena, haien espainol-

zaletasuna edo haien oportunismo politikoa? Euskarari bizkarra ematea ala langileriaren interesak nahiko erabakimenez ez defenditzea? Gauza biak, apika. Izan ere, hori izan daiteke Osaren definizioarik zehatzena: ezker abertzalearekin erabat identifikatzeko arazoak dituen arren, PSOErekiko oportunismoa sakonki kritikatzeko duen intelektuala da.

Definizio horri beste ezaugarri bat gaineratu behar zaio, bosgarren atalean jasotzen dena («Euskal idazlea», 215.-256. or.). Eta horretan ez dago dudarik: Osa euskaltzalea da, orenen buru. Horretan ez dago ez aldaketarik, ez zalantzarik, ez eboluziorik. Euskaltzale gisa hasi zen idazten eta euskaltzale gisa idazten ari zela hil zen. Tesia ere, finean, ez zuen egin Filosofiaz edo Pedagogiaz, Euskal Sintaxiaz baizik. Esanguratsua.

Ezer gutxi geratzen zait gaineratzeko. Azken kritika bat, apika. Liburuak badu akats formal bat, batzuetan nahiko gogaikarri bihurtzen dena: ez dago aipuak egiteko sistema argirik. *Ibidem* eta horrelakoak erabiltzea zalantzarik da batzuetan, eta deseroso sarritan; bukerako bibliografiak ere, apika, tratamendu formal osoago bat merezi zuen. Garbi dago zeintzuk diren Sudepekin erabili dituen iturriak, baina beti ez dago garbi zein den une konkretu bakoitzean aipatzen ari dena, edo zehaztasun hori eskuratzea ez da eroso. Akats txiki bat, baina aipatu beharrekoa.

Pruden Gartzia Isasti